

ERABAKIA, GRADUONDOKO ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ERREKTOREORDEARENA, FORMALIZATZEKO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK UDA IKASTAROAK FUNDAZIOARI (UNIBERTSITATEAREN BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUA) 2023-2026 EKITALDIETAN UNIBERTSITATE MIKROKREDENTZIALAK KUDEATZEKO ENKARGUA (EUROPAR BATASUNEKO NEXT GENERATION EU FUNTSEKIN FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN (21. OSAGAIA, 6. INBERTSIOA) BAITAKO MIKROKREDENTZIALAK).

Leioa, 2025eko uztailaren 17a

Ainhua Berasaluze Correak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordeak, unibertsitate horren izenean eta ordezkari ari dela eskuordetuta dituen eskumenen babesean (EHUko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakia errektorearen eskumenak eskuordetzekoa eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehaztekoa; 2025eko otsailaren 19ko EHAA).

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Erabaki hau dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen mende (aurrerantzean, SPKL), zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eraman diren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak.

BIGARRENA.- SPKLren 32. artikulua dio: *1. Botere adjudikatzailerik beren burua antolatu ahalko dute obra-, hornidura- eta zerbitzu- kontratuen eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen berezko prestazioak zuzenean emateko beste pertsona juridiko batez baliatuta, hari aldezturik mandatu emanda eta tarifa bidezko ordain baten truke; horretarako, artikulua honetan xedatutakoari jarraituko diote, eta betiere erabiltzen duten pertsona juridikoak, zeina zuzenbide publikokoa zein zuzenbide pribatukoa izan baitaiteke, beren bitarteko propio pertsonifikatuaren kalifikazio juridikoa merezi behar du (...)*”.

HIRUGARRENA.- Aipatutako 32. artikulua horren arabera, Uda Ikastaroak Fundazioa EHUn bitarteko propio bat da, eta horixe adierazten du espresuki Fundazioaren Estatutuen 33. artikulua. EHUK ontzat eman zituen Estatutu horiek Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 11n hartutako ebazpenaren bidez.

Fundazioaren Estatutuen 6.1 artikulua araberak: *Helburuak eta onuradunak. 1.- UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren helburuak dira:*

a) UPV/EHUko Uda Ikastaroak antolatzea.

b) Beste era bateko jarduerak antolatzea, “UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioko” Patronatuak bere egitea edo sortzea erabaki duelako.

LAUGARRENA.- Next Generation EU ekimenaren esparruan, Suspertze eta Erresilientziarako Europako Mekanismoa sortu zen, eta bitarteko horrek laguntza ematen die hogeita zazpi estatu kideei, hain zuzen ere, zuzeneko transferentzien eta maileguren bidez, inbertsio publikoak areagotzeko eta ekonomia eta enplegua suspertzen laguntzeko, eta hartara COVID- 19 osteko erronka ekonomiko eta sozial nagusiei aurre egiteko.

Espainiako Gobernuak, Ministroen Kontseiluaren 2021eko apirilaren 29ko ebazpenaren bidez, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana onartu zuen (2021eko apirilaren 30eko EBO, 103. zk.).

Plan horretan zehaztutako jarduera ildoetako bati, 21. osagaiari hain zuzen, «Hezkuntza sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, 0-3 urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne» deritza, eta osagai horretako 6. inbertsioan jasota dago «Unibertsitate Mikrokredentzialak Garatzeko Plana», helburua izanik kalitate handiko unibertsitate mikrokredentzialak eskaintzea hainbat arlotan, herritar helduak birkualifika daitezen, lan eremuan eskatzen diren trebetasun eta gaitasun espezifikoak emango dizkieten ikastaro labur, malgu, modular eta metagarrien bitartez.

Ministroen Kontseiluak 2023ko abenduaren 19an emandako ebazpenaren bidez, baimena eman zen «Unibertsitate Mikrokredentzialak Garatzeko Plana» gauzatze aldera autonomia erkidegoen artean kredituak banatzeko egindako proposamenerako (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 21. osagaiko 6. inbertsioa 2023-2026 ekitaldietarako) eta proposamena Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrean aztertzeke.

Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorra 2023ko abenduaren 21ekoa ebazpenaren bidez zehaztu zuen unibertsitateek mikrokredentzialak garatzeko 48.500.000 euroko inbertsioaren banaketa (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 21. osagaiko 6. inbertsioa 2023-2026 ekitaldietarako), eta Euskal Autonomia Erkidegorako 2.174.983 euro zehaztu ziren. Kopuru hori jarduera planen artean banatu beharra zegoen, helburua izanik 2.610 mikrokredentzial eskaintzea aipatutako erabakian zehaztutako irizpideei jarraikiz. Ebazpen hori betetze aldera, 2023ko abenduaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak EAERI esleitutako zenbateko hori EHURI eskualdatu zion unibertsitate mikrokredentzialak garatzeko (Europar Batasuneko Next Generation EU Funtsekin Finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 21. osagaiko 6. inbertsioa 2023-2026 ekitaldietarako). EHUK 2026ko ekainaren 30era bitarteko epea dauka esleitu zaion zenbateko horrekin 2.610 mikrokredentzial sortzeko. Bestetik, irailaren 1era arteko epea izango du ziurtagiriak emateko beharrezko diren tramite guztiak egiteko, eta Mikrokredentzialen Planeko gastuak justifikatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak zehaztuko dituzten baldintzei jarraituz.

BOSGARRENA.- EHUK zerbitzu enkargu bat hitzartuta dauka Uda Ikastaroak Fundazioarekin (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) horren bidez berezko ikasketak kudeatzeko eredu baten proiektu pilotua kudeatzeko. Enkargu horrek 2023ko uztailaren 11ko data dauka eta gehienez ere, 2 urteko indarraldia.

Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak 2024ko uztailaren 23an emandako erabakiaren bidez, formalizatu egin zen Universidad Del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Uda Ikastaroak Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) eginiko zerbitzu enkarguaren eranskina, enkarguan mikrokredentzialei lotutako berezko ikasketak barne hartzeko.

Hala ere, proiektu pilotua gorabehera, beharrezkoa da enkargu zehatz bat hitzartzea EHUK mikrokredentzialen arloan zehaztuta dituen mugari eta helburuak betetzeko, horretarako zenbait arrazoi direla bide.

Batetik, proiektu pilotuaren kudeaketarako egindako enkarguaren epe muga 2025eko uztailaren 11 da. Hala ere, Mikrokredentzialen Plana betetzeko epea 2026ko irailaren 15era artekoa da.

Bestetik, eranskina sinatu zenetik egindako kudeaketan izandako esperientziak agerian utzi du beharrezkoa dela egokitzea Uda Ikastaroak Fundazioak izango zituen kudeaketa gasturako aurreikusitakoak.

Azkenik, EHUK ez dauka plataforma informatiko propiorik matrikulen kudeaketaren arloan Next Generation Funtsen bidez finantzatutako Mikrokredentzialen Planean zehaztutakoei aurre egiteko.

EHUK uste du, kontuan hartuta Fundazioaren Estatutuetako 6.1.b) artikulua eta 2023ko uztailaren 11n enkargua sinatu zenetik joan den urte honetan proiektu pilotuan izandako emaitzak, Uda Ikastaroak Fundazioa (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) egokia dela mikrokredentzialen gestio ekonomiko eta administratiborako, esperientzia luzea baitu bizitza osoko prestakuntzarako ikasketak eta ikastaroak antolatzen; hala ere, enkargu horrek kalterik egin gabe UPV/EHUren Uda Ikastaroen antolaketari eta Uda Ikastaroak Fundazioak berak egiten dituen beste jarduera batzuei.

Adierazitako guztiagatik, honako hau da

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Formalizatzea eta arautzea EHUK Uda Ikastaroak Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) eginiko enkargua, aintzat harturik erabaki honen BALDINTZAK atalean ezarritakoa.

Bigarrena.- Agindua ematea erabaki hau EHUn kontratatzailearen profilean argitaratzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau Uda Ikastaroak Fundazioari helaraztea, bere kontratatzailearen profilean argitara dezan.

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- BALDINTZA OROKORRAK

EHUk Uda Ikastaroak Fundazioari (EHUren bitarteko propio pertsonifikatua) eginiko enkargu honek ez du aldatuko bere jarduerari loturiko obren, instalazioen eta ekipamenduen titulartasuna (EHUk jarraituko du izaten titularra), eta ez du eraginik izango ere ikerketen emaitzen titulartasunean, ezta sor daitezkeen jabetza industrialaren eta intelektualaren eskubideetan ere (eskubide horiek EHUrenak eta haren IRIrenak izaten jarraituko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera).

Era berean, enkargu honek ez du esan nahi eskumenaren titulartasuna lagatzen denik, ezta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzen direnik ere, eta enkargua egiten duen organo edo erakundearen erantzukizuna izango da enkarguaren xede den jarduera material zehatzaren euskarri diren egintza edo ebazpen juridiko guztiak ematea. Halaber, EHUri dagokio enkargu honen xede diren jarduerak eta ekintzak zuzentzea eta planifikatzea, hargatik eragotzi gabe jarduera horien koordinazioa fundazioaren zuzendaritza akademikoarekin eta administrazio orokorrarekin.

EHUk, enkargua betearaztean, zuzenean kontrolatuko ditu soil-soilik enkargua betetzera bideratutako Uda Ikastaroak Fundazioaren jarduerak.

Enkargu hau egin da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 32. artikulua eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren babesean, eta eraginkortasun eta errentagarritasun ekonomikoko arrazoiek justifikatzen dute, kontuan harturik Uda Ikastaroak Fundazioak prozedurak, aplikazioak, langileak eta ekipamenduak dituela aukera ematen dutenak agindutako jarduera bakoitza modu eraginkor eta indibidualizatuan kudeatzeko.

BIGARRENA.- ENKARGUAREN XEDEA

EHUk Uda Ikastaroak Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) eginiko enkargu honen xedea da unibertsitateari laguntza ematea unibertsitate mikrokredentzialen kudeaketan (mikrokredentzialek babes dute Europar Batasuneko Next Generation Eu Funtsekin Finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 21. osagaiko 6. inbertsioa 2023-2026 ekitaldietarako).

Kudeatzearen zereginak izango dira, oro har:

- Plataformaren bidez mikrokredentzialen proposamenak hartzea eta prestatzea.
- Plataforma erabiltzean sor daitezkeen arazoak konpontzeko erabiltzaileei laguntza ematea.
- Posta elektronikoaren bidez proposamena egin duenari mikrokredentziai buruzko informazioa bidaltzea zabalkundea eman diezaion
- Ikasleen izen-emateak eta matrikulen diru bilketa kudeatzea, eta bildutakoa unibertsitateko kontuetan sartzea behin betiko kitapena egin ondoren.
- Jarraipena egitea prestakuntza ekintzetarako zehaztutako datei.

- Plataforman ikasleen ebaluazioko emaitzen berri ematea adierazita "gai" edo "ez gai".
- Ikasleei, irakasleei eta zuzendaritzari gogobetetze inkestak bidaltzea.
- Web gunean eta plataforman beharrezko garapenak eta eguneraketak egitea. Lan horiek berariaz eskatuko ditu Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordeak, eta eskaria gauzatzeko, aldez aurretik idatziz eta berariaz onartu beharko da aurrekontua.
- Egingako gastuaren justifikazioa Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioak Mikrokredentzialen Planean zehaztutako eran eta, egoki denean, Eusko Jaurlaritzak zehaztutakoari jarraikiz.

Fundazioak gastuen fakturak eta kitapena aurkeztuko dio EHUri, Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzara zuzenduta, eta gastuak bereizita aurkeztu beharko ditu: batetik, mikrokredentzial guztiei dagokien gastu orokorra; bestetik, mikrokredentzial bakoitzaren kudeaketari dagokiona.

Enkargu honen barruan Fundazioari dagozkion jarduerak Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzarekin koordinatuta egingo ditu.

Enkarguaren helburu den kudeaketak ez du eraginik izango programen, emaitzen eta sortutako jabetza industrial eta intelektualaren eskubideen titulartasunean, eta EHUrena eta haren irakasle-ikertzaileena izango da titulartasun hori, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Era berean, EHUri dagokio matrikulatutako pertsonen mikrokredentzialak burutzearen ondorioz sortzen diren titulu akademikoak ematea, indarrean dagoen legedian eta Mikrokredentzialen Planean ezarritakoaren arabera.

Uda Ikastaroen Fundazioak kontabilitate zuzen eta zehatza eramango du eta EHUK beti izango du eskura, arlo horretako dokumentazioarekin batera.

Kontratu honen kargura langileak kontratatzean, berdintasun eta publikotasun printzipioei jarraituko zaie, eta ez dute inolako lan edo administrazio loturarik izango EHUrekin.

Uda Ikastaroak Fundazioak nahitaez egin beharko ditu enkargatu zaizkion jarduerak, ezarritako jarraibideen arabera.

HIRUGARRENA.- - GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Uda Ikastaroak Fundazioak kudeatuko ditu enkargatutako jardueretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eta Fundazioak kontratatutako pertsonen ez dute inolako lan edo administrazio harremanik izango EHUrekin.

LAUGARRENA. - AZPIKONTRATAZIOA

Uda Ikastaroak Fundazioa EHUn bitarteko propio pertsonifikatua izateak, haren xede sozialak, EHUn Uda Ikastaroen antolakuntzan duen esperientzia zabalak (1993tik, ikastaroen 12. edizioa) eta haren lantaldearen kualifikazioak, prestakuntzak eta esperientziak justifikatzen dute enkargu honen laguntza teknikoko jarduerak erakunde horren esku uztea.

Horregatik, konkurrentzia publikoari, ez-diskriminazioari eta publikotasunari buruzko Estatuko eta EBko printzipio eta arauak betetzeko, Uda Ikastaroak Fundazioak ezin izango du azpikontratatu enkargatutako jardueraren funtsezko zatia. Hala ere, Udako Ikastaroen Fundazioak hirugarrenekin kontratatzen jarraitu ahal izango du enkargu honen funtsezko parte ez diren kanpoko zerbitzuak, Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzak web gunerako eta plataformarako eskatzen dizkion garapenei dagokienez. Bat dator hori, analogiaz (Kode Zibileko 4.1 art.), SPKLko 32.7.b) artikuluan zehaztutakoarekin, izan ere, hau dio: *Bitarteko propioak hirugarrenekin prestazio partzialak kontratatzen baditu, haien zenbatekoa ez da izango mandatuaren zenbatekoaren ehuneko 50etik gorakoa (...) Halaber, ez da aplikatzekoa izango zerbitzu publikoa propio horretarako sortutako zuzenbide publikoko entitateen bidez kudeatzen den kasuetan, ez eta zerbitzu publikoa kapital osoa titulartasun publikokoa duen zuzenbide pribatuko sozietateren baten bidez kudeatzen den kasuetan ere.*

Gainera, Uda Ikastaroak Fundazioak ez die lagako, azpikontratatu edo transmititu hirugarrenei enkargu honetatik sortutako bere eskubide edo betebeharrak bat bera ere, EHUn baimen idatzirik gabe.

Uda Ikastaroak Fundazioak azpikontratatzeko baimena eskatu beharko dio EHuko errektoreari. Azpikontratatzeko baimen eskaera behar bezala justifikatu beharko da, honako hauek jasota: kontratazioaren xede diren lan zehatzak, haien kostua, kontratistaren nortasuna, haren jardura nagusia eta haren egokitasuna eta gaitasuna egiaztatuko duten lan erlazionatuak. Eskaerarekin batera, entregatu beharko da kontratatzen den erakundearen espezializazioa egiaztatzen duen dokumentazioa, bai eta erakunde horrek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria ere.

Uda Ikastaroak Fundazioa ez da bere betebeharretatik salbuetsita egongo, enkargu honen edozein alderdiri buruzko edozein kontratu egiteagatik, edo haren edozein zati betetzeko edozein betebeharrak eskuordetzeagatik. Beraz, Uda Ikastaroak Fundazioa izango da azpikontratuetatik eta horiekin zerikusia duten erreklamazioetatik eratorritako betebeharren erantzule bakarra, eta obligatu nagusi gisa erantzungo die azpikontratista, agintari edo aholkulari independente horietako edozeinen ekintza edo ez-egiteei, enkargu honetatik eratorritako ekintza edo ez-egite horiek Uda Ikastaroak Fundazioarenak balira bezala.

BOSGARRENA. – ENKARGUA FINANTZATZEKO AURREKONTUA, ENKARGUAREN TARIFAK ETA HIRUGARRENEI AZPIKONTRATATUTAKO ZERBITZUEN KONTRAFAKTURAK

Enkarguko ekintzak finantzatzeko dira Mikrocreds Planean EAeri esleitu zaizkion funtsekin. Funtz horiek 2023ko abenduaren 30ean intsuldatu zizkion Eusko Jaurlaritzak EHUri, eranskin bat gehituz EAEko administrazioak (Hezkuntza Sailaren bidez) eta EHUK 2023-2026 eperako sinatutako "Unibertsitatea+Enpresa+Gizartea" programa kontratuari, horren bidez 2023tik 2026ra bitarteko ekitaldietan unibertsitateak mikrokredentzialak gara ditzan, Europar Batasuneko Next Generation funtsekin finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia

Planaren baitan (21. osagaia, 6. inbertsioa). Funtz horien zenbatekoa 2.174.683 eurokoa da. Microcreds Planaren babeseko mikrokredentzialak abian jarri eta ematean sortutako gastu guztiak, enkargu honetatik eratorritakoak barne, aipatutako funtsekin eta mikrokredentzialen matrikuletatik lortutakoarekin ordaindu beharko dira.

Enkargua finantzatzeko gehieneko aurrekontua zehazteko, kontuan hartu dira enkarguko ekintzak:

- Enkargu hau betetzean Uda Ikastaroak Fundazioak bere giza baliabideekin eta baliabide materialekin zuzenean egingo dituen jardueren finantziakzioa.

Uda Ikastaroak Fundazioak, enkarguaren funtsezko zati diren lan hauek egiteagatik, mikrokredentzial bakoitzaren produkzio kostu zuzenen %6 jasoko du enkarguaren aurrekontuan.

Fundazioak, mikrokredentziala eman eta bukatzean, %6 horri dagokion faktura egin beharko du, oinarri hartuta onartutako behin betiko aurrekontua.

Jarduera horietarako gehieneko aurrekontua 86.427,88 €-koa da.

- Enkargu hau betetzean Uda Ikastaroak Fundazioak zerbitzuak hirugarrenei azpikontratatu zeharka egingo dituen jardueren finantziakzioa. Atal honetan sartzen dira web gunea eta plataforma garatzeko eta eguneratzeko lanen ordainketak, betiere, lan horietarako berariazko eskaria egin bazaio Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordeari eta aurrekontua aldeztu aurretik idatzi bidez onartu bada.

Lan horietarako, aparteko faktura egingo da.

Atal honetarako gehieneko aurrekontua 85.856 €-koa da.

Kitapena honela egingo da:

- Uda Ikastaroak Fundazioak zuzenean egindako lanen fakturazioa.

Mikrokredentziala eman eta bukatzean, ikastaroaren zuzeneko kostuaren %6aren faktura egin dio Fundazioak EHUri, oinarri hartuta onartutako behin betiko aurrekontua.

- Web gunean eta plataforman beharrezko garapena eta eguneraketak egiteko lanen fakturazioa.

Atal honetan Fundazioak fakturatu ahal izango dituen lan bakarrak izango dira berariaz eskatutakoak Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordeari eta aurrekontua aldeztu aurretik idatzi bidez onartu bada. Lan horien faktura lanak egin diren hilabetean bertan egingo zaio EHUri, edo beranduen dela, hurrengo hilabetean.

**SEIGARRENA. - UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAREN ARDURA ETA KONFIDENTZIALITASUNA
UDAKO IKASTAROAK**

Lanak Uda Ikastaroak Fundazioak egingo ditu, arreta handiz zainduz EHUren interesak. Uda Ikastaroak Fundazioko kideek isilpean gordeko dituzte enkarguaren indarraldian eskura ditzaketen datu eta informazioak, bai eta enkargua amaitzean ere.

ZAZPIGARRENA. - DATUEN BABESA

Enkargu honen jardueretan, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia bete beharko du Uda Ikastaroak Fundazioak: 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren Sekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren beste guztiak. Bi aldeek konpromisoa hartzen dute errespetatzeko enkargua gauzatzean edo haren ondorioz eginiko beste edozein akordio espezifikotan ematen den informazioaren konfidentzialtasuna. Bitarteko propio den aldetik, Uda Ikastaroak Fundazioak, enkargu hau gauzatzean, tratamendu arduradunentzat indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak izango ditu.

ZORTZIGARRENA. - INDARRALDIA

Enkargu honek Uda Ikastaroak Fundazioak jakinarazpena hartu eta hurrengo egunetik aurrerako ondorioak izango ditu eta 2026ko ekainaren 30a izango da epe muga enkarguko lan guztiak egiteko, eta 2026ko irailaren 1a azken eguna egiaztagiri guztiak aurkezteko, bat etorrita EAEko administrazioak (Hezkuntza Sailaren bidez) eta UPV/EHUk 2023-2026 eperako sinatutako "Unibertsitatea+Enpresa+Gizartea" programa kontratuko eranskineko hirugarren klausularekin; izan ere, horren bidez 2023tik 2026ra bitarteko ekitaldietan unibertsitateak mikrokredentzialak garatuko ditu, Europar Batasuneko Next Generation funtsekin finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren baitan (21. osagaia, 6. inbertsioa). Aipatutako eranskineko jarduerak egiteko eta egiaztagiriak aurkezteko zehaztutako epeak luzatuz gero, automatikoki eta modu berean luzatuko dira enkargu honetako jarduerak egiteko eta egiaztatze epeak.

BEDERATZIGARRENA. - GARDENTASUNA

Pertsona guztiek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea bermatze aldera, Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikulua aplikatuz, enkargu hau EHUren Gardentasun Atarian argitaratuko da.

HAMARGARRENA. - ENKARGUA ALDATZEA

Enkargua aldatu ahal izango da amaitu aurretik, dagokion errektoreordearen erabaki bidez. Aldaketa idatziz jakinaraziko zaio modu frogagarrian Uda Ikastaroak Fundazioari, eta erabaki honi gehituko zaio eranskin gisa (erabaki honen parte izango da). Nolanahi ere, enkargua aldatu egin beharko da, hala dagokionean, haren edukia aplikatu beharreko araudira egokitzeko.

HAMAIKAGARRENA - SUNTSIARAZTEA

Enkargu honen baldintzaren bat betetzen ez bada, modu arrazoituan suntsiaraztea erabaki ahal izango da. Kasu horretan, enkargua likidatu egingo da, eta konpentsazio eskubidea aitortuko zaio Uda Ikastaroak Fundazioari, benetan eginiko jarduerengatik.

HAMABIGARRENA. – ARAUBIDE JURIDIKOA ETA AURREKO AKORDIOAK IRAUNGITZEA

Enkargu hau administratiboa da eta ordenamendu juridiko-administratiboak arautzen ditu haren interpretazioa eta garapena. Enkargua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko aplikatuko dira Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean edo hura ordeztzen duen araudian jasotako printzipioak.

Erabaki honek indarrrik gabe uzten du beste erabaki hau: Erabakia, 2024ko uztailaren 23koa, Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordearena, zeinaren bidez formalizatzen baita Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Uda Ikastaroak Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) eginiko zerbitzu enkarguaren eranskina, enkarguan mikrokredentzialei lotutako berezko ikasketak barne hartzekoa.



Ainhoa Berasaluze Correa

Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordea